

Txostenari dagokion denbora-tartea

2020ko uztailetik 2021eko ekainera

**Euskal autonomia-erkidegoan
1978tik 1999ra motibazio politikoko
indarkeria-egoeran**

**giza eskubideen
urraketak jasan
dituzten biktimei
errekonozimendua
eta erreparazioa
emateko**

**Balorazio-Batzordearen
urteko lehen txostena**





Giza eskubideen urraketak jasan dituzten biktimei
errekonozimendua eta erreparazioa emateko Balorazio-Batzordea
2020ko uztailetik 2021eko ekainera

Uztailaren 28ko 12/2016 Legearen 18.5 artikulua eta otsailaren 25eko 20/2020 Dekretuaren 2. artikulua bidez garatzen baita **motibazio politikoko indarkeria-egoeran gertatutako giza eskubideen urraketan biktimei errekonozimendua eta erreparaziorako prozedura**– 12. artikulua arabera, Balorazio Batzordeak (aurrerantzean, Batzordea) «urtero egin beharko du txosten bat, non azaldu beharko baititu egindako lanaren alderdi hauek, gutxienez:

- a) Sarrera bat, txostena dagokion garai eta moduan kokatzeko.
- b) Egindako zereginen kontu-ematea, non (...) honako hauek gutxienez jaso beharko baitira: lanaren emaitzak, ikerketen emaitzak, bildutako datuen ezaugarriak, aurkeztutako eskabideak, eta gertatutakoa zehatz-mehatz eta benetan ezagutzen laguntzen duen bestelako datu oro.
- c) Hobetu beharreko arloei edo garatu beharreko ekimenei buruzko gomendioak uztailaren 28ko 12/2016 Legea ezartzean, zehazki, eta giza eskubideen urraketan biktimak aitortzeko politiketan, orokorrean».

Dokumentu honen helburua, Batzordearen urteko I. txosten gisa, konpromiso horri erantzutea da.

Legearen eskemari jarraikiz, txosten hau honako apartatu hauen arabera egituratzen da:

I.- Hitzaurrea

II.- Egindako zereginen kontu-ematea:

1. Balorazio Batzordea eratzea.
2. Aurretiko prestakuntza-/informazio-jarduera.
3. Egindako lanak.
4. Aztertutako kasuen nolakotasuna eta ezaugarriak. Adibide batzuk.
5. Auzitegi-medikuntzaren ikuspegia.
6. Batzordearen lan-metodologia:
 - A) Espedienteei dagokienez.
 - B) Perituen lanari dagokionez (auzitegi-medikuak eta psikologoak).
 - C) Biktimei dagokienez.

III.- Gomendioak

I. Sarrera.

12/2016 Legea, uztailaren 28koa, Euskal Autonomia Erkidegoan 1978 eta 1999 bitartean izandako motibazio politikoko indarkeria-egoeran giza eskubideen urraketak jasan dituzten biktimei errekonozimendua eta erreparazioa ematekoa, uztailaren 28an onetsi zen eta 2016ko abuztuaren 10ean argitaratu zen EHAAn.

12/2016 Legeak honako arau-aurrekari hauek ditu: 107/2012 Dekretua, ekainaren 12koa, Euskal Autonomia Erkidegoan, 1960tik 1978ra bitartean, motibazio politikoko indarkeria-egoeran izandako giza eskubideen urraketen ondorioz sufrimendu bidegabeak jasan zituzten biktimak aitortzekoa eta biktima horiei ordainak ematekoa – urriaren 16ko 426/2013 Dekretuak aldatu zuen–.

Legea onetsi zenez geroztik, ekintza ugari egin dira administrazioaren, politikaren, dibulgazioaren eta epailetzaren arloetan. Txosten honen helburua ez da egindakoaren deskribapen zehatz eta xehatu bat egitea, baina jarduketa nagusietako batzuk aipatzen dira:

- Aparteko lehen epea abiaraztea. Hirugarren xedapen gehigarriak hamabi hilabeteko aparteko epea ezartzen zuen, 12/2016 Legearen indarraldia hasten zenez geroztik zenbatzen hasita, errekonozimendua eskatu ahal izateko, ekainaren 12ko 107/2012 Dekretuan ezarritako kondizio guztiak bete arren errekonozimendu edo erreparazioa eskatu ez zuten edo epez kanpo eskatu zuten pertsonentzat. Eskabide horiek 2016ko abuztuaren 11tik 2017ko abuztuaren 10era aurkezteko aukera izan zuten interesdunek, eta guztira 88 eskabide jaso ziren¹.
- 2017ko maiatzaren 10ean, Espainiako Gobernuak inkonstituzionaltasun-errekurtoa aurkeztu zuen, zeina Konstituzio Auzitegiaren 2017ko maiatzaren 23ko probidentzia bidez onartu baitzen izapidetzeko (ekainaren 21eko EHAA). Mariano Rajoyren aurkako zentsura-mozioa onartu eta 2018ko ekainaren 1ean Pedro Sánchez Espainiako Gobernuak presidente berri izendatu ondoren, negoziazio-prozesu bat hasi zen Eusko Jaurlaritzaren eta Espainiako Gobernuaren artean, Aldebiko Lankidetzaren Batzorde baten baitan. Aldebiko Lankidetzaren Batzordeak bi erabaki hartu zituen: batetik, uztailaren 28ko 12/2016 Legean zenbait aldaketa egitea Eusko Legebiltzarrean; bestetik, Konstituzio Auzitegian aurkeztutako 2336/2017 inkonstituzionaltasun-errekurtoan atzera egiteko akordio bat sustatzea Ministro Kontseiluan. Prozesu horren azken ondorio gisa, Eusko Legebiltzarrak apirilaren 4ko 5/2019 Legea –uztailaren 28ko 12/2016 Legea aldatu zuena– onetsi zen, eta Espainiako Gobernuak aurkezturiko inkonstituzionaltasun-errekurtoa baztertu zen Konstituzio Auzitegiaren 2019ko uztailaren 2ko Autoaren bidez, inkonstituzionaltasun-prozesua amaitutzat emanik (2019/07/29ko EHAA).
- Ebazpena, 2018ko ekainaren 12koa, Giza Eskubide, Bizikidetzaren eta Lankidetzaren idazkari nagusiarena, Euskal Autonomia Erkidegoan 1978 eta 1999 bitartean izandako motibazio politikoko indarkeria-egoeran giza eskubideen urraketak jasan dituzten biktimei errekonozimendua eta erreparazioa emateko uztailaren 28ko

¹ Ebazpena, 2017ko urtarrilaren 9koa, Bakegintza eta Bizikidetzarako idazkari nagusiarena, giza eskubideen urraketen biktimei deklarazioa egiteko eskaera-eredu arautua onartzen duena, uztailaren 28ko 12/2016 legearen hirugarren xedapen gehigarriaren ezarritakoaren arabera (2017ko urtarrilaren 18ko EHAAn argitaratua).

12/2016 Legearen bidez sortutako Balorazio Batzordea osatzen duten pertsonen nortasuna argitaratzen duena (ekainaren 19ko EHAAn argitaratua).

- 2018ko uztailaren 10ean Balorazio Batzordea eratzea, Euskal Autonomia Erkidegoan 1978 eta 1999 bitartean izandako motibazio politikoko indarkeria-egoeran giza eskubideen urraketak jasan dituzten biktimei errekonozimendua eta erreparazioa emateko uztailaren 28ko 12/2016 Legearen bosgarren xedapen gehigarrian ezarritakoa betetzeko.
- Aparteko bigarren epea abiaraztea. 5/2019 Legearen indarraldia hasi zenean, aparteko bigarren epe bat abiarazi zen, hamabi hilabetekoa, 2019ko apirilaren 17tik 2020ko apirilaren 16ra arte (alarma-egoeraren ondoren, epe hori 2020ko uztailaren 2ra arte luzatu zen), ekainaren 12ko 107/2012 Dekretuan ezarritako kondizio guztiak bete arren errekonozimendu edo erreparazioa eskatu ez zuten edo epez kanpo eskatu zuten pertsonentzat. Aparteko epe hori 1960tik 1978ra arteko kasuetako biktimentzat baino ez zen.
- Ohiko epea abiaraztea. 2019ko irailaren 26an, Giza Eskubide, Bizikidetzaren eta Lan-kidetzaren idazkari nagusiaren 2019ko irailaren 19ko Ebazpena argitaratu zen EHAAn. Ebazpen horren bidez, eskabideak aurkezteko epea abiarazi eta eskabide-eredu normalizatua onartu zen, giza eskubideen urraketan biktima eta osasun-laguntza aitortzeko, uztailaren 28ko 12/2016 Legearen babespean (Euskal Autonomia Erkidegoan 1978 eta 1999 bitartean izandako motibazio politikoko indarkeria-egoeran giza eskubideen urraketak jasan dituzten biktimei errekonozimendua eta erreparazioa emateko).
- Otsailaren 25eko 20/2020 Dekretua –zeinaren bidez garatzen baita motibazio politikoko indarkeria-egoeran gertatutako giza eskubideen urraketan biktimen errekonozimendu eta erreparaziorako prozedura– onartzea (EHAA, 44. zk., 2020ko martxoaren 4koa).
- Laguntza psikologikoa eta medikoa eskatzeko prozedura aktibatzea. 2020ko uztailaren 1az geroztik hona, 12/2016 Legearen 11. artikuluan aurreikusitako osasun-laguntzarako eskabide-eredua eskuragarri dago Eusko Jaurlaritzaren webgunean.

12/2016 Legea onartu zenetik Batzordeak lan egiten hasi ahal izan duen arte, lau urte igaro dira. Atzerapen hori, hein handi batean, errekonozimendu-prozesu horretarako bidean jarri diren hainbat oztoporen ondorio da: 12/2016 Legearen aurkako inkonstituzionaltasun-errekurtsoa, 5/2019 Legearen aurkako bi inkonstituzionaltasun-errekurtso, eta zenbait administrazioarekiko auzi-errekurtso Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegian Batzorde honen izendapenaren aurka.

Azkenean, oztopo horiek guztiak kendu egin dira auzitegiek ez dituztelako izapidetzeko onartu edo atzera botatzeko ebazpenak eman direlako.

Oztopo batzuek ezin ziren aurreikusi, saihetsezinak ziren, eta, halaber, sektore honi ez ezik, herritar guztien bizitzako beste sektore batzuei ere eragin diote: pandemiaz ari gara, jakina.

Beste oztopo batzuek gobernuen eta talde politikoen arteko negoziazioa eta akordioa eragin zuten, arlo horretan aurrera egiten saiatzeko.

Baina badira 12/2016 Legearen, biktima horien eta haien errekonozimendu eta egiaren aurka etengabe jokatzen dutenak. Batzorde honek adierazi nahi du onartezintzat jo-

tzen duela hori. Ez genuke onartuko bestelako ezein biktimarekin. Ezein biktimarekin ez. Ezta hauekin ere. Adierazi nahi dugu ezin dela ez normalizatu, ez onartu 12/2016 Legearen etengabeko aurkaratze-egoera, ez eta Lege horrek errekonozimendua ematen dien biktimak zalantzan jarri ere. Gainera, jomuga ez da batzorde honen jarduera sistematikoki atzeratzea; izan ere, egiaztatu dugu ezbehar horiek, zalantzarik gabe, zailtasun erantsia ekarri diotela Batzordeari agindutako zeregin neketsu eta zorrotzari, eta kezka egiaztatu dugu, azken batean, berandutze horren kaltetu handienak biktimak berak direla.

Giza eskubideen nazioarteko zuzenbideak esparru juridiko sendoa aurreikusten du, *biktima guztiak* giza eskubideen ageriko urraketengatik erreparazioa jasotzeko eskubidea dutela aitortzen duena.

Arau-esparru hori eta nazioarteko jurisprudentzia egon arren, askotan, biktimek ez dute uste eskubide hori mamitu denik. 12/2016 Legeak babesten dituen egoeretan ere, non erreparazio-programa espezifikoak ezarri diren, ondoren zehazten den bezala, biktimei erreparazio egoki, azkar eta osoa emateko arazo askok bere horretan jarraitzen dute.

Batzorde honek honako oinarritzko premisa hau lantzen du: erreparazio-programek biktimak berdintasunean eta modu koherentean trata daitezela zaindu behar dute, biktima bakar bat ere estigmatizatu gabe, eta biktima guztiak erreparazioa jasotzeko duten eskubidea –erreparazio «egokia, eraginkorra eta zehatza»– ezingo da egon baldintzatuta testuinguru politikoaren edo eragile edo agintari jakin batzuek nahi dutenaren –edo nahi ez dutenaren– arabera.

II. Egindako zereginen kontu-ematea

1. Batzordea eratzea:

Batzordea 2018ko uztailaren 10ean eratu zen formalki; hala, pertsona hauez osatuta geratu zen:

Titularra: Monika Hernando Porres, Giza Eskubide, Biktima eta Aniztasuneko zuzendaria.

Ordezkoa: Miren Aintzane Ezenarro Egurbide, Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuaren (Gogora) zuzendaria.

Titularra: Jon Mirena Landa Gorostiza, zigor-zuzenbidean espezializatutako jurista.

Ordezkoa: Enara Garro Carrera, zigor-zuzenbidean espezializatutako jurista.

Titularra: Sabino Ormazabal Elola, biktimen alorreko aditua.

Ordezkoa: Bertha Gaztelumendi Caballero, biktimen alorreko aditua.

Titularra: Luis Sala González, historialaria.

Ordezkoa: Jon Penche González, historialaria.

Titularra: Juana Balmaseda Ripero, 12/2016 Legeak arautzen duen gaian aditua.

Ordezkoa: Felipe Gómez Isa, 12/2016 Legeak arautzen duen gaian aditua.

Titularra: Eloina Mayo Cabero, 12/2016 Legeak arautzen duen gaian aditua.

Ordezkoa: Josu Oskoz Barbero, 12/2016 Legeak arautzen duen gaian aditua.

Titularra: Francisco Etxeberria Gabilondo, 12/2016 Legeak arautzen duen gaian aditua, gizarte zibila ordezkatzuz.

Ordezkoa: Miguel Angel Navarro Lashayas, 12/2016 Legeak arautzen duen gaian aditua, gizarte zibila ordezkatzuz.

Titularra: Benito Morentín Campillo, biktimen arloan esperientzia duen auzitegi-peritua.

Ordezkoa: Carlos Cubero Santos, biktimen arloan esperientzia duen auzitegi-peritua.

Titularra: David del Valle Pérez, biktimen arloan esperientzia duen auzitegi-peritua.

Ordezkoa: Alberto Ramírez Álava, biktimen arloan esperientzia duen auzitegi-peritua.

Titularra: María Ángeles Elicegui González, biktimen arloan esperientzia duen psikologoa.

Ordezkoa: Amaya Bóveda Gómez, biktimen arloan esperientzia duen psikologoa.

Idazkari teknikoa: María Ángeles Sánchez Amado, Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritzako teknikaria.

Arrazoi pertsonalengatik eta/edo lan-arrazoiengatik, azken hilabeteotan baja batzuk izan dira, baina baja horiek bete egin dira edo laster beteko dira.

Zehazki, honela:

- José Luis Cárdenas Galán biktimen arloan esperientzia duen auzitegi-perituak Carlos Cubero Santos ordezkatu du.
- Julia Lamas Ruíz biktimen arloan esperientzia duen auzitegi-perituak David del Valle Pérez ordezkatu du.
- Victor Verano Zapatel biktimen arloan esperientzia duen auzitegi-perituak Alberto Ramirez Álava ordezkatu du.
- Eloína Mayo Caberok baja hartu zuen, eta gaur egun Eusko Legebiltzarrak haren postua izendatu behar du.
- María Ángeles Elicegui Gonzálezek baja hartu du eta Amaia Bóveda Gómezek bete du haren plaza; gaur egun, Bóveda Gómezek hutsik utzitako postua izendatu behar du Auzitegi Medikuntzako Euskal Institutuak.

Batzordea eratzeke bileran, Batzordeak Juana María Balmaseda Ripero hautatu zuen lehendakari, Legearen 17.2 artikuluan ezarritakoari jarraituz.

2. Aurretiko prestakuntza-/informazio-jarduera:

Inkonstituzionaltasun-errekurtsua eta 12/2016 Legea aldatzeko prozesua gauzatzeke egon ziren hilabeteetan, Batzordeak, ezin izan bazion ere biktimek aurkeztutako eskabideei buruzko azterketa-lanari ekin, hiru informazio- eta/edo prestakuntza-bilkura egin zituen:

- 2018ko urriaren 30ean, Balorazio Batzordeak informazio-bilera bat egin zuen Gasteizen, eta bertan 12/2016 Legearen azterketa juridiko bat egin zen, Jon Mirena Landa irakasleak eta Sabino Torre Araubide Juridikoaren sailburuordeak aurkeztuta.
- 2018ko azaroaren 12an, Carlos Martín Beristain irakasleak dinamizatutako beste prestakuntza-bilkura bat egin zen Bilbon.
- 2019ko urtarrilaren 11n, Batzorderako hirugarren prestakuntza-bilkura egin zen. Oraingo honetan, Francisco Etxeberria irakasleak hartu zuen bere gain bilkura -Donostian egina- dinamizatzeko ardura.

Aurreko oztopoak gaindituta, 2020ko martxoaren 17an Balorazio Batzordearen bilera baterako deialdia egin zen, behin 20/2020 Dekretua onartuta, lanari ekiteko. Hala ere, bilkura hori bertan behera utzi behar izan zuten Euskadin osasun-larrialdiko egoera dekretatu zenean.

3.- Egindako lanak:

Urteko txosten honek bildutako denbora-tarteari dagokionez (2020ko ekainetik 2021eko ekainera), 31 aldiz egin da Batzorde honetarako deialdia, eta 22 lan-saio egin dira zegozkien deialdi eta gai-zerrendekin. Halaber, bilera horiei zegozkien aktak eman ziren.

Lan-bileretarako deialdiez gain, eta Legearen 14.2.a artikuluan eta Dekretuaren 6.c) artikuluan finkatutakoari jarraikiz, Batzordeak 9 bilera monografiko egin ditu, biktimen lekukotasunak jasotzeko, eta 55 espedienteri zegozkion ikus-entzunezko 41 erre-gistro lortu dira guztira.

	Deialdiak.	Lan-saioak	Lekukotzak jasotzeko bilkurak	Egin diren elkarrizketak
2020ko ekaina	1	1		
2020ko uztaila				
2020ko iraila	3	1	2	10
2020ko urria	5		5	22
2020ko azaroa	1	1		
2020ko abendua	3	3		
2021eko urtarrila	2	2		
2021eko otsaila	3	3		
2021eko martxoa	4	3	1	4
2021eko apirila	3	3		
2021eko maiatza	3	2	1	5
2021eko ekaina	3	3		
Guztira	31	22	9	41

- Orain arte 35 espediente ebatzi dira. Ekainaren 26an Bilbon egingo den ekitaldi publikoan zuzenean entregatu zaizkie interesdunei bai Batzordearen irizpena, bai Eusko Jaurlaritzak emandako ebazpena.

Guztira 1.017 espediente jaso dira; zehazkiago, 89 espediente aparteko lehen denbora-tarteari dagozkio, 169 espediente aparteko bigarren denbora-tarteari, eta gainerako 759ak, azkenik, ohiko denbora-tarteari.


Aztertutako 55 espedienteei buruzko datuak

Aparteko lehen denbora-tartea: 48


Aparteko bigarren denbora-tartea: 2

Ohiko denbora-tartea: 5

Kasuak, sexuaren arabera bereizita:




Biktimaren adina gertakaria jazo zenean:




7 biktima adingabeak ziren gertakariak jazo zirenean.


Gertakariak non jazo ziren:



Gertakaria jazo zeneko urtea:




Kausa:



Pertsona batzuk behin baino gehiagotan egon dira atxilotuta eta tratu txarrak pairatu dituzte atxilotetan; badira 5 aldiz jasan dutena urraketa hori (pertsona batek are 10 aldiz).


Eragilea:




Adskripzioa:

Afiliazio politiko ezagunik gabe: 26 / JOC/HOAC/Parrokia-jarduera: 4


Sindikalismoa:



Alderdiak eta beste erakunde batzuk:



ETArekin lotuta



Zenbait kasutan, familiako kideak ere biktima bihurtzen ziren etxebizitza edo familia-establezimenduen aurkako erasoak egiten zirenean, bai eta polizia-abusuen eraginez ere, atxilotuta batzuetan. Kasu horiek zenbatu gabe daude, pairatu zuten biktimiek ez baitzuten hala eskatu.

Lekukotzen ikus-entzunezko erregistroak egiteko, Giza Eskubide, Biktima eta Aniztasun Zuzendaritzak Aranzadi Zientzia Elkartearen zerbitzuak kontratatu ditu, antzeko lanetan esperientzia egiaztatua duen elkarte izaki (frankismoaren biktimekin eta ekainaren 12ko 107/2012 Dekretuaren esparruan aitortutako biktimekin egindako grabazioak).

Dekretuaren 6. artikulua araber, Batzorde honek informazioa eskatu die, Idazkaritza Teknikoaren bitartez, hainbat erakunde judizial, polizial, administratibo eta/edo sanitarioi, alegatutako gertaerak edo datuak egiaztatzeko.

Jasotako espedienteak osatzeko, hainbat izapide egin dira, hala nola zenbait ospitaleri historia klinikoak eskatzea (Madrilgo La Paz Ospitalea, Gurutzetako Ospitalea –Barakaldo–, eta Arrasateko San Juan de Dios Ospitalea). Halaber, jurisdikzio militarri ere espedienteren bat eskatu zaio, zehazki, Madrilgo 4. Artxibo Militarri. Gainera, espediente judizialak eskatu dira Madrilgo epaitegietan, bai eta autopsia-txostenak ere nola Auzitegi Medikuntzako Euskal Institutuari hala Madrilgo Auzitegi Medikuntzako Institutuari. Halaber, Madrilgo La Almudena hilerriari informazioa eskatu zaio, eta Arartekoari, berriz, espedienteak.

Kasu gehienetan, erakundeak prest egon dira laguntzeko, baina Batzordeak beti ezin izan du lortu eskatutako informazioa. Horren zergatia ez dugu argi: agian, urte asko igaro direnez, eskatutakoa ez da geratu erregistratuta, beharbada, arrazoiak beste bat izan den; izan ere, batzuetan, erakundeek eskabidea jasotzean jarrera positiboa izan badute ere, emaitza faltaren arrazoiak ematerakoan ez dute solturaz erantzun. Dokumentazioaren erreklamazioaren hasieran gaude, baina gure kezka adierazi nahi dugu; izan ere, dokumentazio jakin batzuk bizkorrago eta ardura handiagoz ez badira eskuratzen, baliteke lanari kalte handia egitea. Horregatik, laguntzeko eskatzen diegu erakundeak. Giza eskubideen urraketak dira, eta bizitzari ez ezik, integritate fisiko, psikiko, moral eta sexualari ere eragiten diete; larritasun handieneko urraketak dira; gainera, denbora biktima askoren aurka doa.

4. Aztertutako kasuen nolakotasuna eta ezaugarriak:

Batzordeak lehen urte honetan aztertu eta ebatzi dituen kasu ugariak oso askotari-koak eta biziki larriak izan dira. Batzordeko kideok, gaian adituak garen arren, askotan harrিতuta eta larri sentitzen gara kasuak zein mingarriak diren entzunda, eta are gehiago, jakinda euren lekukotza ematen diguten biktimen eta horien senideen oinaze horrek badirauela oraindik ere. Horregatik, jendea konturatu egin beharko litzateke arazo hau ez dela iraganeko kontua. Gaur egun gure artean bizi diren pertsonak dira –batzuk hil egin ziren, baina pertsona maiteak suntsituta utzi zituzten–, eta duten minari arreta eman behar zaio gaur egun.

Honako kasu hauek aztertu eta/edo ebatzi dira:

- Poliziaren kontroletan besterik gabe hildako pertsonak, ibilgailua igarotzean inolako abisurik eta seinalerik gabe metrailatuta. Jokabide-eredu bat izan zen hura, garaiko testuinguru historikoetan dokumentatuta geratu den bezala.
- Poliziaren zaintzapean gertatutako heriotzak.
- Polizia sekretuak manifestazio edo kontrolen batean balaz zauritutako pertsonak, ondorio txar larri eta iraunkorrek, bizitza asko betiko zapuztuta.

Halakoa izan zen, adibidez, 1975ean EPK-PCE alderdiko panfletoak jaurtitzen ari zela Brigada Politiko Sozialeko polizia batek bere arma disparatu eta pel-bis aldean zauritutako gazte baten kasua. Zauriek lesio psikologiko eta fisiko larriak eta iraunkorrak eragin zizkioten, eta larri eragin zion horrek biktimaren bizitzari.

16 urteko gazte baten kasua ere kategoria horretakoa da: Begoñako Ama Bir-jina klinikatik bueltan (senide bat bisitatzera joan zen), Ordena Publikoko Kidegoek jaurtitako gomazko jaurtigai batek jo zuen, Areatzako zubiaren pa-rean zegoela; kolpearen ondorioz, begi-globoa galdu zuen biktimak.

- Tortura eta tratu txarren kasu larriak ere pairatu zituzten zenbait biktimak, eta Batzordeak detektatu du halakoetan erabilitako teknikan eta etiologia krimi-nalean jokabide-eredu bat dagoela nolabait: poltsa, bainuontzia, kolpeak, «aha-tea», «gurpila», etengabeko zapalkuntzak, loa sistematikoki galaraztea, izu-giroa, ekintza senide edo lagunengana zabaltzeko mehatxuak, hirugarrenen oihuak –benetakoak edo grabatuak– ipintzea, etab.

Hala gertatu zitzaion, esaterako, atxilotu eta ohatze batera lotu zuten per-sona bati; behin lotuta, usta edo zartailu moduko batekin jo zuten (guardia zibilek eurek «idizil» edo «idi-zakil» deitzen zioten usta horri), oinetako bi zolak erabat ubeldu zitzaizkion arte. Horrez gain, biktima horrek adierazi du burua komuneko zuloan sartu ziotela eta tanga hustu zutela, burko bat jarri ziotela aurpegian eta zapaldu egiten zutela sudurretik odola ateratzen hasi zitzaion arte, leiho batetik zintzilikatu zutela, zigarroak itzali zizkiotela besoetan, belarria pospolo batez erre ziotela, ukondoekin jo egin zutela bizkarrean, eta kolpe batzuk eman zizkiotela bizkarrean, eta, horrez gain, zan-patekoak ere eman zizkiotela, 15 zentimetroko diametroa zuen barra batez, nola bizkarrean hala ipurmasailetan (izan ere, biktimak dio kokzixa hautsi ziotela). Gogoan du, halaber, Pelusa deitzen zioten txakur handi bat zegoela bulegoetan; biktimaren hitzetan, «*Guardia zibilek baino beldur handiagoa ematen zidan txakur hark*».

- Egiaztatu da, halaber, Batzordearen aurrean agertu diren biktima batzuek zera alegatu dutela, giza eskubideen urraketak behar bezala ikertzeko betebeharra ez betetzeko eredu errepikakor bat egon ohi zela. Horrela, orain arte ikerketa-egintzabideak berrikusi diren kasuetan, halakoak daudenean, azalekoak dira eta gaizki bideratuta daude: ikerketarik ez dago edo erabat «ez-eraginkorra» da, estatu demokratiko baten estandarren edo Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren jurisprudentziaren arabera. Fiskaltzaren eta epaileen jarrera (polizia-boterearekin ados jarrita egonik ere) ez zetzan bermeak edo legezketasuna zaintzean (legezketasuna frankista izanik ere), honako hauetan baizik: jarduerak baliozkotzea –edo, besterik gabe, atxiloketak bideratzea–, espetxera bidaltzea agintzea, gero inolako kausarik egon eta kausak artxibatzen jarraitu arren. Biktimak epailearen aurrean agertzen zirenean tratu txarrak jasan zituztela begien bistakoa bazen ere, inoiz ez ziren jazoera horiek ez aurpegiratzen, ez aitortzen, eta are gutxiago ikertu edo zigortzen.

Adibide batzuek argi eta garbi erakusten dute zertaz ari garen:

«Epaileari laguntza eskatu zion poliziek epaitegitik irten bezain laster berriro atxilotzeko asmoa zutela susmatzen zuelako, baina epaileak bere bulegotik alde egiteko agindu zion. Irtetean “bahitu” eta beste galdeketa batean torturatzen jarraitu zuten. Torturak salatu zituen epailearen aurrean, baina epaileek ez zituzten salaketa horiek aintzat hartu».

«Denetarik egin zidaten. Oso egoera txarrean atera nintzen, eta epaileak berak ere galdetu zidan: Zer egin dizute, mutiko? Baina espetxera bidali ninduen ezer ere ikertu gabe».

- Atxiloketak herritarrak kontrolatzeko bitarteko gisa erabiltzen direneko kasuak. Halako kasuetan, pertsona jakin bat atxilotu nahi zuten agenteek, baina, pertsona hori une horretan ez zegoenez, haren senideak atxilotzen zituzten, aurkitu nahi zuten pertsona hark bere burua entregatu zezan; horrelako kasuetan, ez dago inolako berme juridiko edo medikorik, eta indarraren erabilera neurritz kanpoko eta arbitrarioa da, giroa erabateko zigorgabetasunezkoa izanik.

Lehen urte honetan aztertutako eta ebatzitako kasuak aztertutik, egiaztatu dugu Busturialdean (Gernika eta Bermeo), eta, hedaturaz, Bakion, arreta berezia jarri zutela indar polizialek; izan ere, herritarren artean beldur eta tentsio handiko giroa zabaldu zuten neurrigabeko jardueren bitartez. Atxiloketa horietako asko indiskriminatuak izan ziren.

Nabarmentzekoa da, adibidez, goizalde batean hogeitabi bat pertsona autobus batean sartu eta Bermeoko Guardia Zibilaren kuartelera eramanez zituzteneko atxiloketa. Atxilotu gehienak aske utzi zituzten, kargurik gabe, baina lau, ordea, kuartelean atxiki zituzten; geroago, lau pertsona horien kasua artxibatu egin zen, inolako epaiketarik gabe.

Kasu askotan, atxiloketak aldi behin edo gertaera jakin batzuk jazotzean errepikatzen ziren, eta arbitrariotasuneko eta kontrol sozialeko giroa iraunarazten zen horrela, izuaren eta agintekeriaren bidez.

Adibide bat atxiloketa honen kasua da: «Ahizpa etxean ez zegoenez, bera atxilotu eta eramanez zuten. Ama, gaixorik, bakarrik geratu zen etxean, eta bera Land Roverretako batean sartu eta herrian bueltara ibili ziren, ahizpa noiz agertuko. Beldurrez dardarka ari zen. Ez zekien zer egin nahi zioten.

Ez zioten esan atxilotuta zegoenik, ez zioten inolako paperik erakutsi, eta ez zioten ezer leporatu formalki. (...) Ez zekien ahizpa non zegoen. «Amu» edo «apeu» gisa zeukaten, eta honako hau esaten zioten: “Laster agertzen ez bada, Bermeora eramango zaitugu, kuartelera”. Azkenean, ahizpa kuartelera bertaratu zen. Orduan, etxera joateko esan zioten agenteek, azalpen gehiago eman gabe.

- Arreta handiagoz aztertzeoak dira, zalantzarik gabe, emakumeei eragindako torturak eta tratu txarrak, genero-arrazoiengatiko umiliazioaren osagai gehigarria baitute.

Nazioarteko erakundeek gomendatzen duten bezala, biktimei errekonozimendua eta erreparazioa emateko Balorazio Batzordeak lan handia egin du giza eskubideei buruz egindako ikerketetan genero-ikuspegia txertatzeko, bai eta dagozkion espedienteak izapidetzeko ere, testuinguru sozial jakin batzuetan jazo ohi diren diskriminazioak eta genero-indarkeria espezifikoak identifikatzen dituen azterketa bat egin ahal izateko.

Genero-analisiak agerian utzi behar ditu giza eskubideen urraketak eragiten dituen inpaktu bereziak, batez ere emakumeengan eta genero-aniztasuna eta sexu-identitateko aniztasuna duten pertsonengan, emakumeen eta gizonen artean sozialki eraturako botere-harreman desberdinak txertatzen dituela kontuan izanik; horrela, eskubide horiek urratzeak emakumeengan duen inpaktu berezia ere agerian utzi behar dira.

Horrela, Batzordearen lanean zehar egiaztatu ahal izan denez, emakumeek, torturak edo bestelako tratu krudel eta ankerrak jasaten dituztenean, sexu-indarkeriako ekin-tzak pairatzeko arrisku espezifiko erantsia dute, baita beren genero, sexu-orientazio edo genero-identitatearen ondoriozko indarkeria-modu jakin batzuk ere.

Horrez gainera, Batzordearen lanak agerian uzten du, halaber, poliziaren zaintzapean zeuden emakumeen aurkako indarkeriaren kasuan emakume izatearekin zerikusia duten abusu-modu ohikoak jazo zirela: bortxaketa-mehatxuak, ukituak, gehiegizko miaketak, irainak, sexu-intimitatearen galdeketa inbaditzaileak eta sexu-umiliazioak, etab.

Bizitako esperientziak kontatu dituzten emakumeen lekukotzetan honako hauek errepikatzen dira: identitateari edo lehenespen sexualei buruzko irainak, itxurari buruzko umiliazioak eta isekak, arrazoirik gabe biluztea eta luzaroan biluzik uztea, abusua eta are sexu-erasoa dakarten ukituak, intimitatea urratzea eta inbaditzea eginkariei dagokienez, garbiketarako eta hilekoaren higienarako eskubideaz gabetzea, eta bortxaketa-mehatxuak eta -keinuak egitea, are tresna edo armekin –baita emakumezko senideen kontra ere–, besteak beste.

«Leher eginda nengoen, hiru egun neramatzan lo egin eta jan gabe, (...) gela batera eraman eta erabat biluzarazi ninduten. Eta bularrak ukitzen eta nitaz barre egiten hasi ziren. Neure burua estaltzen saiatu nintzen, baina mehatxuka hasi zitzaizkidan, ez nezan halakorik egin, eta hau esaten zidaten: «A zer bular nazkagarriak!» «Nor uste duzu oheratuko dela zurekin, ezer duzu-eta balio!» «Emakume gisa ez duzu ezer ere balio!», «Nork maitatuko zaitu zu?».

«Atxilotu ninduten bi aldietan irain eta mehatxu matxistak egin zizkidaten: «ETAn larrua jotzeko sartu zaren urdanga terrorista bat baino ez zara». Praxak ireki zizkidaten eta esan zidaten bortxatu egingo nindutela eta haur polizia bat izango nuela; polizia batek bere galtzak ireki zituen. Garrasi egiten hasi nintzen. Mila modutan iraindu ninduten. Hilerokoa etorri zitzaidan; ez zidaten paperik eman, eta horrela eman nituen hiru egun».

5. Ikuspegia auzitegi-medikuntza eta -psikologiatik:

Auzitegi-perituek 47 kasutan egin dituzte peritu-txostenak, eta ondorio hauek izan dituzte txosten haiek: espedienteetako 35 ebatzi egin ziren, eta beste 12, berriz, ebazteke daude.

- Heriotza eragin zuten kasuak: 10 kasu. 4 kasutan perituaren txostenean ez zen ondorio eztabaidaezinik jaso; beste 2 kasutan, berriz, gehieneko bateragarritasuna zegoela baloratu zen; beste 3 kasutan, ordea, bateragarritasuna oso sendoa zela jaso zen; azkenik, 1ean neurrizko sendotasun-maila ondorioztatu zen.
- Tratu txar / tortura gisa katalogatutako kasuak ($k = 31$). 11 kasutan, bateragarritasunaren balizko sendotasuna zegoela baloratu zen; beste 11tan, berriz, neurrizkoa; 5etan, bestalde, sendotasuna oso koherentea zela; 3tan, gehienekoa. Kasu batean, azkenik, perituaren txostenean ez zen ondorio eztabaidaezinik jaso.
- Gainerako 4 kasuetan, giza eskubideen bestelako urraketak zeuden.
- 17 kasutan, ondorio txarrak deskribatu ziren: 8tan, psikologikoak; 5etan, fisikoak; eta 4tan, azkenik, fisikoak eta psikologikoak. Ondorio txar psikologiko ohikoena trauma osteko estresaren nahasmendua izan zen; 9 kasutan egon ziren. Ondorio txar fisikoak askotarikoak izan ziren: traumatologikoak ($k = 5$), estetikoak ($k = 3$), entzumenekoak ($k = 2$) eta genitourinarioak ($k = 1$).
- Ondorio eztabaidaezinik gabeko balorazioa izan zuten kasuak: 2 kasu.

Aurrekoarekin lotuta, egiaztatu da ez zela inolako auzitegi-baloraziorik egiten, edo, egitekotan, balorazio hori ez zela nahikoa izaten, legezko diziplina medikoaren berezko estandarrei jarraikiz eta atxilotuen eskubideak betetzeari dagokionez; halaber, eragin handia zuen atxilotuak ez zirela fidatzen profesionalaren benetako nortasunaz, zeina gehiegitan justifikatu ohi zen.

6. Batzordearen lan-metodologia.

6.1. Giza eskubideak politika publiko guztien muinean kokatzen dituen ikuspegiaren oinarrituta, eta kontuan izanik legearen xedea, hain zuzen ere, giza eskubideen urraketa horiek egiaztatzea dela, Batzorde honek, deskribatutako aldi osoan zehar, eta beste ikuspegi integral batetik, ikuspuntu inklusiboa eskaini du bere lanean, aniztasunean eta interseksionalitatean ez ezik, giza eskubideak errespetatu eta babestean ere oinarritua dagoena, horien ondoriozko prozedurak izapidetze aldera azken batean.

Legeak kausazko harreman bat identifikatzera behartzen gaitu, motibazio politikoen gaitik giza eskubideak urratu direla egiaztatzeari dagokionez, erreparatu beharreko kaltearen premisa gisa. Ez da ikertzen urraketa-egilearen erantzukizuna, legez galarazita baitago. Baina nahitako jokabideak dira, oso larriak, eta, edozein arbitrariotasun saihesteko, horiek finkatzeko ezinbestean jo behar dugu auzitegi-zientziara, beste peritu zientifiko batzuen txostenetara eta Zuzenbidean eskuragarri ditugun frogabideetara, egiaztatu ahal izateko gertatutako bortxaketa zer-nolakoa eta zenbaterainokoa izan zen.

Horrek esan nahi du, berez, Batzorde honen *lan-prozesuek eta -emaitzek* giza eskubideen nazioarteko estandarretan oinarrituta behar dutela, eta estandar horiek, behin Espainiako estatuak berretsi ondoren, barne-ordenamenduaren funtsezko zati bat

direla, ondorio guztietarako, Konstituzioaren 10.2 artikulua arabera. Bestela esanda, *giza eskubideen printzipioak, balioak eta arauak, betiere genero-ikuspegia txertatu eta integratuta*, Batzordearen lana babesten duen Legean zehaztutako helburuak lortzeko bidea dira. Hori dela eta, gure jardunean legezketasun-printzipioarekiko loturak 12/2016 Legea eta 20/2020 Dekretua izan ditu berehalako gidari, baina, batez ere, indarrean dagoen ordenamendu juridiko osora jo da, eta, bereziki, Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren doktrinaren zatirik garrantzitsuenetara, hura baitzen, hain zuzen ere, giza eskubideen urraketak biktimen aldeko bokazioarekin deskribatzeko baliabiderik egokiena.

Horrela, gure Batzordeak, adierazitakoaz gain, bere jarduketa guztiak gidatzen dituzten funtsezko bost printzipio onartzen eta hartzen ditu funtzionatzeko:

- Giza eskubideen urraketan biktima guztiei giza duintasuna eta erreparazioa aitortzea, «*Biktimaren duintasuna berrezartzea baita erreparazioaren azken helburua*», Nazio Batuen Erakundeko Torturaren Aurkako Batzordeak baimendutako hitzetan.
- Tortura eta/edo tratatu txarren balizko kasuak benetan prebenitzea, ikertzea eta epaitzea eta biktimei erreparazioa ematea betebeharrak lotesle, erabateko eta indargabetu ezina dira.
- Biktimen aldeko tratatuaren printzipioa, prozeduran zehar biktimak ez daitezkeen berriz biktima bihurtu.
- **Pertsonen aldeko printzipioa**, giza eskubideak babesteko nazioarteko araubide osoari informazioa ematen diona, egoera jakin baten aurrean, berme handienerako irizpideei pribilegioa ematea ahalbidetzen duena, giza eskubideak babesteko arau edo irizpiderik zabalaren eta eskubide horiek baliatzeko aukera gutxien murrizten duen arau edo irizpidearen alde egiten duena.
- Gardentasunez jokatzeko, eskatutakoa betetzeko eta kontuak emateko betebeharra, gure lanari erantzuteko eta, hala badagokio, gure lanaren ondoriozko informazio guztia publikoki aztertua izan dadin eskuragarri jarriko dela bermatzeko konpromiso gisa.

6.2. Bere ibilbidearen lehen lan-urtean, Batzordea erabakitasunez eta dedikazioz inplikatu da gizatalde kohesionatu bat sortzeko zereginean, non giza taldeak zorrotzasunez jardun ahalko duen eta haren kideak –adituak hainbat diziplina zientifikotan (historia, zuzenbidea, auzitegi-medikuntza eta -psikologia, auzitegi-antropologia, biktimologia, etab.)– koordinatuta lan egingo duten, eta, horretan oinarrituta, konfiantza faboratuko den, lehenik eta behin, prozesuan, baina, batez ere, biktimgan eta gizarte osoan.

6.3. Batzordeak urte honetan egin dituen jarduketa guztiak legezketasun, independentzia, konfidentzialtasun, lankidetzeta eta eraginkortasuneko printzipioak erabat errespetatuz egin dira (12/2016 Legea, 16.3 art.), eta jarduketa osoa alde aurretik legeak berak aitortutako giza eskubideen urraketak larrin biktimen eskubideak hobeto babesteko antolatuta egon behar duela segurtasun osoz:

A) Espedienteei dagokienez:

- Espedienteen instrukzioa da Batzordearen lan nagusia. Instrukzio horretarako, ezinbestekoak dira hauek:
 - Biktimekin euren etxetik hurbilen dauden lekuetan elkarrizketak egiteko bilerak. Kontaktu pertsonala, inpaktu emozional handikoa kasu gehienetan. Esku hartzean, biktimaren intimitatea eta konfidentzialtasuna errespetatzea eta haren datu pertsonalak babestea.
 - Informazioa modu fidagarrian eta segurtasunez biltzea ikerketaren zatirik garrantzitsuena da (grabazioak).
 - Osoko bilkuretarako bilerak: eztabaidak, Batzordeko kide guztiak bertaratu-ta, kasu bakoitza zehatz-mehatz aztertu ondoren. Eztabaida horietan, irizpide komunak ezartzen dira, bilkuretan hartzen diren eta bilkuren funtsezko zati diren erabakietarako proposamenei aplikatzekoak direnak.
 - Azpibatzerdeen arteko bilerak, alderdi zehatzak jorratzeko, alor espezializatuetatik heldu behar zaienak (zuzenbide-alorra, auzitegi-medikuntzako adituen alorra, edo beste batzuk), eta, ondoren, osoko bilkurara eramane eta Batzorde osoarekin partekatzen direnak.
 - Informazio osagarria eskatzea, Idazkaritza Teknikoaren bidez, informazioa osatu edo argitzeko, kasuak hala eskatzen duenean.
 - Gertaeren berri izan duten pertsonen –lekukoen– lekukotzak entzuteko elkarrizketak; batzuetan, lekukoak dauden lekuetara joan behar izaten da.
 - Txostengile bakoitza auzitegi-perituekin koordinatzea (medikuak eta psikologoak); auzitegi-perituek kasu guzti-guztien nahitaezko txostenak eman behar dituzte, eta, batzuetan, baita biktimekin elkarrizketa osagarriak egin ere.
 - Azterketa berezia, testuinguru historikoei buruzkoa eta erabaki eta jarduera bakoitza legezko-tasun-printzipioarekin bat ote datorren egiaztatzea.

Gorago jada azaldu dugun bezala, kasuistika askotarikoa da, eta, horrenbestez, espediente bakoitza kasuaren berezitasunaren arabera landu behar da.

- Espedienteen instrukzioan eta ebazpenean, Batzordeak eskabideen jasotze-ordena kronologikoa errespetatzeko irizpideari jarraitu dio, baina, kasuren batean, eskatzaileak gaixotasun fisiko eta/edo psikiko larria zuenez –edo ekitatearekin loturiko arrazoi baliokideen ondorioz–, kasu hori lehentasunez izapidetzea erabaki da.
- Ebatzitako espedienteekin egindako lanetan, arestian adierazi dugun bezala, ki-deen ezagutze eta lanbide-esperientiaz gain, kontuan hartu dira doktrina zientifikoa eta Estatuko jurisprudentzia (Auzitegi Gorena eta Konstituzio Auzitegia), nazioarteko jurisprudentzia (Giza Eskubideen Europako Auzitegia, bereziki) eta giza eskubideen urraketei buruzko azterlan espezializatuak, txostenak eta ikerlanak. Hori guztia, uztailaren 28ko 12/2016 Legea eta otsailaren 25eko 20/2020 Dekretua zehatz-mehatz errespetatuta.
- Lan-metodologia eraginkor bat sortzen ere ahalegindu da Batzordea, lan-bolumen handiari, denboren antolaketari eta dedikazio handiaren eskakizunari erantzuteko gai izango dena, Legeak Batzordera bideratzen dituen baliabideak

optimizatze aldera. Behin eta herriz eskatu ondoren, idazkaritza teknikoaren zuzkidura indartuko da, espedienteen instrukzio eta ebazpen egokia arintzen saiatzeko. Laguntza hori nahikoa ez bada, etorkizunerako beharrezko baliabideak gehitzeko eskatuko da.

- Batzordeak bere irizpide-independentzia baliatuta egin du lan kasu guztietan bere ustea taxutzeko, eta bere usteari jarraikiz ematen ditu irizpen guztiak, bere egitateak behar adina argitzen saiatuta, eskatzaileak alegatutako oinarri faktikoen eta emaitza kaltegarriaren arteko kausazko lotura ezartzeko behar den neurrian; eskatzailea, alegazioa egin ondoren, biktima bihurtzen da. Zeregin zaila, batzuetan zailtasunak ere badakartzana.
- Batzordeko kideek oso jatorri desberdinak dituzte prestakuntzari eta lanbide-esperientziari dagokienez, eta horrek hainbat balio ematen dizkio Batzordeari, hala nola espezializazio tekniko handia du, aberastasun ukaezina dute haren lan-arlo guztiei, eta zorrotasun handia planteamendu, eztabaida eta proposamenean; zorrotasun horrek, gainera, segurtasuna eta konfiantza ematen dio talde osoari. Hala, espediente bakoitzean, historialariak gertakariak jazo zirenean zegoen egoera soziopolitikoak kokatzeaz arduratzen dira, erabilgarri duten material ugariaren bidez (bibliografia, artxibo historikoak, hemeroteka, ikerketa espezializatuak eta literatura zientifikoa, besteak beste). Juristek arlo horretan espezializatutako ezagutzak ematen dituzte, bai esparru akademikotik (Zigor Zuzenbidea, Giza Eskubideen Katedra eta Unibertsitatea), bai zuzenbide-jardunbidetik, abokatutza-jardunaren esperientziaren bitartez (aztertutako kasuetan aplikatu daitezkeen funtsezko zuzenbidea eta zuzenbide prozesala), bai jurisprudentzia-doktrinaren ezagutzatik, dela estatukoa (Auzitegi Gorena, Konstituzio Auzitegia) dela nazioartekoa (Giza Eskubideen Europako Auzitegia, bereziki). Gaian adituak diren gainerako kideek giza eskubideekin lan egiten eskuratutako ezagutza eta esperientzia baliotsuak eskaintzen dituzte, hainbat espezializazio-arlotatik (auzitegi-antropologia, torturen eta tratu txarren biktimekin egindako lana, eta abar). Eta Justizia Administrazioan esperientzia handia duten auzitegi-adituek (medikuak eta psikologoak), kasu bakoitzean, euren ikuspegi oso espezializatu ematen dute, eta horri esker, nahitaezko txostenak berme guztiekin eman ditzake Batzordeak (kasu bakoitzean dauden frogen balorazioa eta interpretazioa: heriotzak, lesio iraunkorrak, kalte-ordainak, etab.).

Profesional guztiek, nolahi ere, badute ezaugarri komun bat: giza eskubideen ikuspegitik egiten dutela lan, eta, gainera, den-denek deritzote biktimak prozesuaren protagonistatzat hartu behar direla. Ahaztu gabe, orobat, lana gauzatzen den denbora-tarte osoan genero-ikuspegia aplikatzea funtsezkoa dela.

Baina Batzordeak lehenengo urtean izandako lorpenik garrantzitsuena honako hau da: giza kohesioa eta benetako lantalde bat erdiestea, irizpide propio eta independenteak eratuz joan dena, baloratu beharreko kasu bakoitzean Batzordeak bere iritzia eratu dezan.

B) Auzitegi Medikuntzako Euskal Institutuari atxikitako eta Batzorde honetan lanerako izendatutako perituen (auzitegi-medikuak eta -psikologoak) lanari dagokionez, lehen fase honetan jarduketa-protokolo bat diseinatu da, Justizia Administrazioaren zerbitzura lan egiteko erabilitako metodo eta irizpide profesionaletara doitu eta zeregin horren ezaugarri espezifikoetara egokituta dagoena.

Peritu guztien artean kasuen balorazio kritikoa egitea eta irizpide komunak hartzea izan dira kezka nagusiak:

- Ondorio txarrak baloratzeko, 30/2015 Legearen baremoko nomenklatura eta puntuazio-tarteak baliatu dira.
- Aurkikuntza mediko eta psikologikoen eta ikertutako giza eskubideen urraketen arteko bateragarritasuna ebaluatzeko, Nazio Batuen Istanbulgo Protokoloan ezarritako jarraibideetan oinarritu dira Batzordeko perituak.

Peritu-mailan, oztopo nagusiak gertaerak jazo zirenez geroztik igarotako denboraren ondorio dira, horren eraginez zuzeneko informazio-iturriak galdu baitira, bai eta mediku-erregistroak eta frogak falta izatearen ondorio ere (batzuetan, gainera, halako falten kausa ulertzea ez da erraza).

Antolakuntzari dagokionez, oztopo nagusiak adituen artean informazioa eta irizpide teknikoak koordinatzearekin eta trukatzerekin lotuta egon dira, batez ere elkarren arteko distantzia fisikoa dela-eta.

C) Biktimei dagokienez:

-Biktimentzako zailtasunak egon ohi direla egiaztatzea:

- Gertaerak jazo zirenez geroztik igarotako denbora (batez beste, 30 urtetik gora, eta, kasu batzuetan, are 50 urte). Ez dugu ahaztu behar atzera begirako oroitza-pen traumatikoak izaten direla. Kasu askotan, Batzorde honi emandako lekukotza izan da eraginpeko pertsonak bizi izandako esperientziaz segurtasun- eta errespetu-testuinguru batean hitz egiteko izandako lehen aukera.
- Erakunde publikoekin konfiantzarik ez zutenez, asko luzaroan egon dira anonimotasunean, ez dute harremanik izan erakundeekin beren kasuei zegokienez, edo erakunde publikoek erantzun negatiboa eman diete iraganean (are gehiago, batzuetan ez dute inolako erantzunik jaso).
- Horrez gainera, kontuan izan behar dugu bizipen jakin batzuk berraktibatzeak inpaktu emozional izugarria dakarrela, bizipen horiek kalte larriak eta sufrimendu handia eragin baitizkiete urte ugarian, ondorio suntsitzaileak eragiteaz gain bizitzan eta integritate fisiko, psikiko, sexual eta moralean.

-Biktimek oso positibotzat jotzen dute arreta jaso izana eta emandako lekukotasuna norbaitek entzun izana, askotan isilarazi izan baitira, eta lekukotza eman izanak, beraz, ondorio askatzaileak izan dituzte biktimentzat. Positibotzat jotzen dute, halaber, behin eskabidea aurkezteko urratsa egin ondoren informazioa jasotzea etengabe.

-Funtsezkoa da prozesua zaintzea, bai eta biktimen premiak kontuan hartzea eta biktimei segurtasuna ematea ere bakoitzaren kasuari eta lekukotasunari buruz, ahaztu gabe Batzordeak egiten duen balorazio-prozedura eta egin beharreko hurrengo urratsak azaltzea ere oinarritzkoa dela. Azken batean, biktimak babesteko mekanismoak ezartzea.

-Egiaztatu dugunez, aztertutako kasu gehienetan biktimek gauza berbera espero dute: egitateak aitortzeko, egia zabaltzeko eta erreparazioa jasotzeko dituzten eskubideak gauzatu daitezten. Kalte-ordain ekonomikoak ez dira eskubideen arrazoi nagusiak, eta ez dira, ezta ere, biktimek gehien baloratzen dituzten erreparazio-moduak.

-Kontuan izan behar dugu ebazpenek esanahi sinboliko eta praktikoa garrantzitsua dutela, eta esanahi hori aintzat hartzekoa dela (memoria- edo errekonozimendu-eki-

taldietan parte hartzea, etab.). Eta, hain zuzen ere, bere kasuaren eta egiaren errekonozimendu zabalagoaren arteko lotura hori da biktimak aldarrikatzen duen elementu nagusia. Zer gertatu zitzaien jakitera ematea nahi dute; izan ere, beren bizi-eremuan ez ezik, eztabaidagune publikoetan ere sentitzen dute hutsune hori. Hutsune horrez gainera, batzuetan minez sentitzen dute egia eta errealitate hori desitxuratu eta eraso egiten dutela zenbait kontakizunek, errealitate horren existentzia ezkutatu eta ukatzeraino ere iristen direnak.

-Batzordeak bere gain hartzen ditu biktimen eskaera ohikoenak. Horretarako, biktimek egindako eskaeren zerrenda bat transkribatzen diogu Batzordeari. Ez dugu nahi zerrenda hori zehatza izatea, baina bai Batzordeak deritzona ondo islatzea:

«Prensa askatasunik ez zegoenez, bertsio hori izan zen hedabideek zabaldu zuten bakarra. Egin zidatenaren egia ezagutzera ematea gustatuko litzaidake».

Garrantzitsua iruditzen zaie beren ahaidea poliziaren indarkeriaren biktima izan zela aitortzea eta gau hartan gertatutakoaren berri izatea, «nahiz eta errekonozimendua berandu iritsi», esan dute, «lehenik aita hil zelako eta hortik hamaika hilabetera ama».

Orain arte, ezein erakundek ez du inolako errekonozimendurik egin gertatutakoaren, jasandako erasoaren eta biktimak, haren familiak eta hurbilekoek jasandako ondorio txarren bidegabekeriari buruz. «Zigorgabetasuna gailendu da urte hauetan guztietan memoria-betebeharraren eta gertaeren egiaren gainetik».

«Jakin nahi nuke zehazki nor atxilotu eta jo ninduten, alde batetik. Bestetik, gustatuko litzaidake Estatuak gertatutakoa onar dezala, ez daitezela tortura gehiago gertatu eta torturatuei errekonozimendua egin diezaietela. Halako eskubide-urraketak berriz ere ez gertatzeko, egia esateko eta justiziaz jokatzeke bermeak».

«Hitz egin dadila horretaz, jendeak jakin dezala zer gertatu zen, berriro jazo ez dadin».

Erakundeek eta kontakizunek hura (bere senidea) ahantzaraztea gustatuko litzaike, eta lege honen bidez errekonozimendua ematea, egin ziotena ofizialki aitortu dadin: «Hemen ere torturatu egiten da», «Zerrendetan jasota gera dadila, Gogora Institutuak edo dagokion erakundeak kontuan har dezala». Gezurtia zela esan zuten; bada, «gezurra haiek kontatu zutela» aitortu dadila orain. «Ez dadila ezkutatu gertatutakoa, esan dadila egia».

III.- Gomendioak.

1. Urteroko errekonozimendu-ekitaldi instituzionala.

Batzordeak, elkarrizketatutako biktima gehien iritzia jaso ondoren, euskal erakundeek gomendatzen die, gutxienez, maila goreneko errekonozimendu-ekitaldi publiko bat egin dezatela urtero, eta egindako memoria-ekitaldietan benetan sar ditzatela biktima horiek. Ekitaldiaren jomugak biktima horien egia eta giza eskubideen urraketa larriak argitara ekartzea izan beharko luke.

2. Legebiltzarraren kontrola eta bulkada.

Botere publikoei eskatzen diegu beren jardunean kontuan har dezatela giza eskubideen ikuspegia biktima horiek tratatzean eta kontuan hartzean, betiere egia, justizia eta erreparaziorako eskubide legitimoak eta halako jazoerak berriz ere ez gertatzeko bermeak gauzatzen lagunduta. Horregatik, Balorazio Batzorde honek beharrezko neurriak hartzea proposatzen du, etorkizunean antzeko urraketarik ez dela gertatuko bermatzeko ez ezik, biktimen memoria babesteko ere bai. Horretarako, hau iradokitzen du: Eusko Legebiltzarreko Giza Eskubide, Berdintasun eta Justizia Batzorde honek berak baloratu ahal izatea gune edo mekanismo bat sortzeko aukera, hori lortzeko neurri zehatz eta egokiak dituen ibilbide-orri bat sortu eta bultzatzeko lagungarria izango dena.

3. Sustatu beharreko beste neurri batzuk.

Balorazio Batzordeak nabarmendu nahi du garrantzitsua dela giza eskubideen urraketak gauzatzen direnean «berriz ez gertatzeko bermeak» kontzeptuak zer esan nahi duen argi izatea, bai eta neurri espezifikoak –legezkoak, judizialak, instituzionalak eta giza eskubideen gaineko sustapen- eta hezkuntza-neurriak– hartu beharra ere, etorkizunean horrelako bidegabekeriak jazotzea galarazten eta kultura demokratikoan sakontzen laguntze aldera.

Besteak beste, neurri horiek honako hauek ekarri behar dituzte:

- Batzordearen txosten hau eta geroagokoak zabaltzea eta ahalik eta gehien hedatzea, baita hezkuntza- eta pedagogia-helburuetarako ere;
- Justizia Administrazioako langileei giza eskubideen urraketa larriak –hala nola tortura eta tratu krudel eta gizagabeak– detektatzeko eta hobeto prebenitzeko beharrezkoak diren baliabideak ematea;
- giza eskubideen arloko prestakuntza espezifikoaren areagotzea segurtasun-indar eta -kidegoetako kideentzat eta espetxeetan lan egiten duten pertsonentzat;
- giza eskubideen defendatzaileak eta gobernuz kanpoko erakundeak babestea, euren jarduera egiten ari direla pairatzen dituzten irain edo larderia-ekintzei dagokienez.

4. Biktimak babesteko betebeharrak publikoak.

Erakunde publikoek eskatzen diegu, eta, bereziki, alderdiei eta ordezkari politikoei, kontuan har dezatela aztergai dugun gaiari buruzko beharrezko eztabaida demokratikorako zuhurtziaz eta biktimaren aldeko begiradaz gauzatu behar dela, Batzordera jo duten pertsonak ez daitezkeen berriz ere biktima bihurtu; izan ere, pertsona horiek urte gehiegi daramatzate ahaztuta eta errekonozimendurik gabe, eta, kasu askotan, are estigmatizazio bidegabea pairatzen eta existitzen direla ukatzen zaiela.

5. Legea garatzeko zuzkidura.

Kontuan izanik Batzordeak lan-bolumen handia duela eta lan-prozeduraren lege- eta erregelamendu-diseinuaren beraren ondorioz ezaugarri jakin batzuk dituela, Eusko Jaurlaritzari eskatzen diogu, 12/2016 Legearen 16.2 artikuluan ezarritakoa betetze aldera, Batzordearen esku jar ditzala giza baliabideak, bai eta bere lana behar bezala egiteko behar dituen baliabideak ere.

6. Kanpaina espezifikoa.

Eusko Jaurlaritzari eskatzen zaio 12/2016 Legearen edukari, helburuei eta lehen lorpenei buruzko berariazko kanpaina publiko bat egiteko, balizko biktimei eta balizko eskatzaileei zuzendua egongo litzatekeena, betiere jarraitu beharreko prozeduraren berri emanez eta eskabideak aurkezteko epea laster amaituko dela ohartarazita (2021eko abendua). Komenigarria izango litzateke kanpaina hori behar beste denboraz egitea, gizartean sakon sartzeko eta hainbat komunikabide konbinatzeko, EITB taldea bera barne.

7. Legearen helburua areagotzea

Azkenik, eta kontuan hartuta 12/2016 Legearen helburu nagusia giza eskubideen urraketak jakin batzuen biktimak aitortzea dela (*bizitza eta integritate fisiko, psikiko, moral edo sexualaren aurkako urraketak, bai eta halako urraketak behar bezala ikertzeko obligazioa ez betetzea ere*), Batzorde honek adierazten du egokia, komenigarria eta beharrezkoa dela etorkizunean bere jarduketaren eremua bizitzaz edo integritateaz bestelako urraketetara zabaltzea, bai eta denbora-tarte luzeago baterako areagotzea ere. Hori guztia, justiziaren arabera eta *progresibotasun-printzipio* deritzonari jarraikiz, zeinak babesa etengabe zabaltzea baitakar berekin, giza eskubideen nazioarteko zuzenbidearen arabera betiere.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko ekainaren 23a

